

Desadostasunak gairiditzeko urtea izan daitekeela adierazi du Seaskak

EEPk laguntza bikoiztu dion arren, 80.000 euroko galera duen aurrekontua onartu behar izan du

AITOR RENTERIA
Baiona

Azken hamarkadan Frantziako Hezkuntzak kukuarena egiten ihardetsi die Seaskako eskariei. Aurtun, ordea, Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) bikoiztu egin du Seaskari ematen zion diru laguntza, 95.000 eurotik 200.000 eurora emendatuz. Horrekin batera, irakasleak kontratatzeke irizpideak finkatzeko lanetan engaiatu da EEP.

Frantziako Hezkuntzak ez ditu ikastolen berezitasunak kontuan hartzen, eta EEPren parte-hartzea erabakigarria izan daiteke traba hori gairiditzeko. EEPren sinesgarritasuna jokoan dagoela esan dute ikastolako ordezkariak. Seaskako lehendakari Ixabel Xarritonen iritziz, «izan daiteke tuneletik ateratzeko urtea».

Baikor agertu arren, Seaskak, federazio gisa, milioi bat euroko aurrekontua du, eta aurtengo ekitaldirako 80.000 euroko galera duen aurrekontua onartu behar izan du. Hori betetzeko diru iturri

berriak atzeman beharko ditu, beraz. Uste du EEPren barnean hizkuntza politika burutzeko nahikeria badela, baina horrek Frantziako ordezkarien erabakiak betetzen dituztenez, zuhur aritu behar dela nabarmendu du Xarritonek.

IRAKASLE KOPURUAREKIN LISKARRAK.

Irakasleak hartzeko orduan baliatu behar diren irizpideak dira Frantziako Hezkuntzaren eta Seaskaren arteko liskarra azken urteotan. Frantziak ez ditu kontuan hartzen bi urteko haurrak, eskola-tuak egon arren. Hori dela eta, Seaskak beregain hartu behar izan ditu sei lanpostu.

«Lehen aldiz eragile nagusiak norabideetan lehentasun gisa sartu ditu EEPk, Seaska barne». Ikastolen ereduak garatzeko erabakigarria izan dena dela azpimarratu du Xarritonek. «Hurbiltasuna eta kalitatezko ereduak funtsezkoak dira eskola hautatzerakoan». Kopuruak behin-behinekoak badira ere, Seaskak 2.400 ikasle inguru ditu, 1.611 lehen mailan.

Seaskaren buruhausteak ez dira bukatu, ordea. Azken tenorean lan handiak egin behar izan dituzte Baionako Hiriondo ikastolan. Ama eskolako haurrak hartzeko egoitza larunbatean bukatu zuten, eta, gainera, lan handiak



Baionako Hiriondo ikastolan ama eskola berria egin dute, baina lehen mailakoentzat lanak egiteke daude. GAZKARIZ

«Lehen aldiz eragile nagusiak norabideetan lehentasun gisa sartu ditu EEPk, Seaska barne»

IXABEL XARRITON
SEASKAKO LEHENDAKARIA

egin behar dira Xalbador kolegioan, Kanbon.

ESKOLA PUBLIKOEN OKUPAZIOAK. Bestalde, eskola kartak eragindako postu murrizketek protestak eragin dituzte eskola publikoan. Ain-

hoako eskolako lehen mailan adibidez, okupatu dute gurasoek. Nafarroa Beherean Irisarriko eta Donapaleuko eskolak okupatu dituzte, eta Zuberoan Mitikilekoa. Gaur Pauko Ikuskaritza bilduko da, eta protesta berriak egon daitezke.

Erabili harpidedun txartela



Baliatu bertako kupoi eta deskontuez

Azkarate: «Kontseiluari elkarlanerako jarrera erakustea eskertuko nioke»

ERREDAKZIOA
Donostia

«Kontseiluari eskertuko nioke kanpotik ez dakit nongo zerutan edo linbotan dagoen Jainko orokusle baten ordeze eta besteei etxekolanak jarri ordeze elkarlanerako jarrera erakutsiko balu», azaldu zuen atzo goizean *Euskadi Irratia*-n Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako bozeramaile eta Kultura sailburuak, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak euskarak museotan daukan lekuari buruz egin berri duen azterketaren inguruan. Hain zuzen, *Kontseilutik* aldizkariaren argitaratu dutenez, Euskal Herriko museoek erdiak ez du euskararen presentzia orekatu bermatzen.

Kultura sailburuaren ustez

prentsaurreko baten bidez egunkarietan —«batzuetan besteetan baino gehiago»— presentzia lortzea baino hobe luke Kontseiluak bestelako proposamenak egingo balitu. «Segururik beste emaitza batzuk lortuko lituzkeela guri edota museoek zuzenean hitz egingo baligute». Azkarateren esanetan, ordea, ez Jaurlaritzak ez museoek ez dute inolako proposamenik jaso zuzenean Kontseilutik.

Halaber, Azkarateren irudiko Kontseiluak egin duen bezala udal batzuk euskararen erabilerrari buruzko azterketa gairiditu duten edo ez neurtzea «ez da bidea aurrera egiteko». Administrazioaren eta herritarren erakundearen beste-lako harreman baten alde egin du Azkaratek.



2007ko I eta II. katalogoak ez badituzu eskuratu, deitu:
943 30 43 45

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**